



txintxarri

Ederki gozatutako San Pedro Jaiak

Festa giro ederra izan da Lasarte-Orian.
Sorgin Jaien 25. urteurreneko ekimenek zein
udalaren jarduerak herritarrek bildu dituzte / 1-32



TXINTXARRI

MERKEALDIA

betaurreko monofokala

MÓ 79€

betaurreko progresiboa

MÓ 189€

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15.
LASARTE-ORIA



hitzordua
eskatu

www.multiópticas.com   

Abuztu osoan zabalik!





AURREKARIAK

San Joan surik egin ez bazuten ere, festen aurreko giroa ongi berotu zuten

Egun horietako muturreko beroagatik bertan behera utzi zuten urteko egun luzeenaren eta gau laburrenaren bueltan egin behar zuten ekimena. Edonola ere, bestelako jarduerak egin zituzten

Txintxarri

Sanpedroak hasi zirenerako giroa bero-bero zegoen eta ez ekain amaieran egin zuten egun sargoriengatik soilik, baita udalak eta zenbait eragilek lankidetzan antolatutako aurrekari jarduerengatik ere.

Ekainaren 19tik 21era Espainiar Estatu osotik etorritako motorzaleen topaleku bihurtu zen Lasarte-Oria hamabigarren aldiz. Rallya aurrera eraman zuen Scooter Club Euskadik eta ohiko giro ona uztartu zuten Vespa eta Lambretta etxeetako motorren burrunbarekin.

Garai horietan ohikoak diren ikasturte amaierako emanaldiekin jarraitzeko, errepertorioko onena erakutsi zuten Erketz Euskal Dantza Taldeko kideek Okendo plazan. Urtero lez, herriarren ikusmina eragin zuen emanaldiak eta lepo bete zuten

Okendo plaza. Eragile horretan 25 urteko ibilbidea urratu izanagatik merezitako oroigarriak eman zizkieten Nestor eta Amaia taldekideei.

Kirol emanaldiak ere aurrera eraman zituzten. Lasarte-Oria Trail Mendi Elkartekoek familia ibilaldia antolatu zuten eta bero egin bazuen ere dozenaka mendizale igo ziren Buruntzara. Bestalde, Benjamin eta Infantil kategorietako futbol txapelketak aurrera eraman zituen Texas Lasartearrak, Michelinen. Eta, hirugarrenik, sasoiaren daudela erakutsi zuten Biyak Bat egoitzako bazkideek, kiroldegian erakutsitako gimnastika ariketen bidez.

Esan bezala, ekain amaierako egun askotan beroa egin zuen eta, horregatik, San Joan bezperako ospakizuna bertan behera uztea erabaki zuten.



Motorzale iritsi berriak. TXINTXARRI



Vespa eta Lambretta marketako motorrak Okendon erakutsi zituzten. TXINTXARRI



Dozenaka motorzalek egin zuten 80 kilometroko ibilbidea, Okendo enparantza atzealdetik abiatuta. TXINTXARRI



Elkar agurtu aurretik umore onez abestu eta dantzatu zuten motorzaleek. TXINTXARRI



Txalapartarien harrera. TXINTXARRI



Texaseko jokariak, txapelketan sartutako gol bat ospatzen. TXINTXARRI



Kalbario bideko aldapa igotzen. TXINTXARRI



Familia ugarik parte hartu zuten LOTMEren ibilaldian. TXINTXARRI



Musikariek jotako doinuak dantzatu zituzten Erketzeko kideek. TXINTXARRI



Dantza ikusgarriak. TXINTXARRI



Dantzari talde bat, ezpata dantza aurrera eramaten. TXINTXARRI



Nestor eta Amaia saritu zituzten, dantza taldean 25 urteko ibilbidea urratu izanagatik. TXINTXARRI



Erketzen ikasturte amaierako emanaldiak ikusmina eragin zuen. TXINTXARRI



Dozenaka erabiltzailek parte hartu ohi dute Biyak Bat-ekoen erakustaldian. TXINTXARRI



Adinekoak, ariketa bat egiten. TXINTXARRI

bugati ERRETEGIA

Ikatz-brasan egindako oilaskorik onena

UDA ORDUTEGIA

Asteartetik ostegunera
18:30etik 23:30era

Ostirala, larunbata eta igandeak
12:00etatik 23:30era

GORA SAN PEDRO JAIAK!

Pº de Arrapide, 74 • 20160 Zubieta (Donostia)
☎ 943 37 76 62 ✉ bugatierretegia@gmail.com 🌐 www.bugatierretegia.com

PISARRO
HORTZ KLINIKA DENTAL

IÑIGO DE LOIOLA, 9 BEHEA
LASARTE-ORIA TEL: 747 40 33 21

Gora Lasarte-Oria!

**ODONTOLOGIA OROKORRA | ODONTOLOGIA ESTETIKOA | KIRURGIA |
ENDODONTZIA | PADI | ORTODONTZIA | PERIODONTZIA | ODONTOLOGIA
PEDRIATIKOA | ZURIKETA | PROTESIA**



SORGIN JAIK 25 URTE

Herriaren oihua inoiz baino ozenagoa izan da

Herritik eta herriarentzat prestatutako 25. akelarrea aurrera eraman dute sorginek. Oztopoak oztopo, orain arte egindako ibilbidea balioan jarri eta beste hainbeste urtez festa eredu hori antolatzen jarraitzeko laguntza behar dutela nabarmendu dute

Txintxarri

Sorgin Jaiak, herri baten oihua / 25 urtez piztutako sua / Herri-tik herriarentzat egina, ongi eto-rrri lagun! / Goazen denok txosna gunera. Honela dio jai alternatiboen harira sorginek argitaratu berri duten (bideoklipa festetan bertan estreinatu zuten) *Herri baten oihua* abestiak, mende laurdeneko sorginkeriaren esentzia eta osagaiak biltzen dituen: auzolana, jasangarritasuna, euskara, feminismoa... Bada, 25. akelarrea ere gisa horretara egin zuten ekainaren 25etik 29ra, ekimen berriak eta historiko batzuk (Oria ibaiko jaitsiera, kasu) uztartuta.

Sorginen jaitsieratik bertatik erakutsi zuten festa bereziak izango zirela, kuadrilla mordoa joan zirelako Isla plazara, pijamak eta blusak jantzita. Oken-dora iritsi eta pregoia irakurri

zuten, orain arte urratutako bidea balioan jarri eta etorkizunean elkartzen jarraitzeko laguntza eskatzeko. Ondoren lehertu zen festa eta aurrera eraman zituzten ilusio handiz prestatutako ekimen guztiak:

bazkari herrikoi erraldoia, kontzertuak, herrien arteko desafioa, Oriako jaitsiera, Palestinaren aldeko elkartasun ekintza, Sorgin Azoka... Herriaren oihua inoiz baino ozenagoa izan da aurten.



Sorginen jaitsiera jendetsua izan zen. TXINTXARRI



Xaukena elektrotarangak girotu zuen Sorgin Jaien hasiera. TXINTXARRI



Konfeti ez zen falta izan. TXINTXARRI



Abesti ugari jo zituzten Xaukenakoek, adibidez, Su Ta Gar taldearen 'Jo ta ke'. TXINTXARRI



Txupinazoa jaurti aurretik pregoia irakurri zuten mende laurden honetan antolakuntzan izan diren sorgin ugari. TXINTXARRI



Suziri ugari jaurti zituzten zerura. TXINTXARRI



Pijama eguna izan zen aurrenekoa sorginentzat. TXINTXARRI



Marte Lasarte taldea, egurrean. TXINTXARRI

Pijamak eta koloretako blusak soinean zituztela ekin zioten akelarreari sorginek. Isla plazatik jaitsi, txupinazoa Okendon bota eta aurreneko parranda egin zuten giro ederrean



Herriko musikari kuadrilla. TXINTXARRI



Ertz talde herritarrek abesti propioak eta zenbait bertso jo zituen. TXINTXARRI



Hasi eta buka, giro ona izan zen nagusi Okendo plazako sorgin gunean. TXINTXARRI

EAGI LHik ikasturtea jai giroan agurtu du

Ikasle, irakasle eta langileek elkarrekin ospatu dute ikasturte amaiera, tituludunen aitortza, hamaiketakoa eta zozketa batekin.

Urtero egin ohi duten moduan aurten ere herriko EAGI Lanbide Heziketa ikastetxean ikasturte amaierako jai ospatu dute.

Azterketak amaitu ondoren, bigarren mailako ikasleek titulua lortu dute jada, horietako asko lanean hasiko dira eta beste batzuek ikasten jarraituko dute. Lehenengo mailako ikasleek berriz, udako oporraldiaren ondoren bigarren mailari ekingo diote.

Zuzendariaren agurraren ondoren, ikasle eta irakasleek hamaiketakoa egin zuten denek elkarrekin, bertan ikasturtean izandako gorabehera eta bestelako jardun zuten.

Jaia bukatzeko, ohorezko matrikulak banatu ziren eta zozketa txiki bat ere aurrera eraman zuten ikasleen artean.



EAGI

GIPUZKOAKO
ERAIKUNTZA ESKOLA
FP CONSTRUCCIÓN
GIPUZKOA

Goi maila eta erdi mailako zikloak ERAIKUNTZA

EAGI Gipuzkoako Eraikuntza Eskola. (Eraikuntza arloko hainbat ziklo eta ikastaro eskaintzen ditugu gure eskolan. Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoa gara. 2017an abiatu genuen gure ibilbidea Lasarte-Orian, bertako herritarrei nahiz Gipuzkoa osoko gazte eta helduei eraikuntzan lan egiteko beharrezko formazioa emateko.





Kuadrilla ugari animatu ziren tortilla txapelketan parte hartzera. TXINTXARRI



Epaimahaia, prest. SORGIN JAIAK



Podium dotorea osatu zuten V. Tortilla Txapelketako aurreneko sailkatuek. SORGIN JAIAK



Erra! bertso eskolakoak, kopiaka, bertso afari autogestionatua egin bitartean. SORGIN JAIAK



Musika, magia eta tailerra nahastu ziren Palestinaren aldeko ekimenean. TXINTXARRI

Palestinara bide hartuko zuen ontzidia egin zuten herrialde horri elkartasuna adierazteko ekintzan parte hartu zuten hurrek, Porrotx eta Marimotots pailazoekin batera



Marimototsek paperezko itsasontziak egiteko azalpenak eman zituen. TXINTXARRI



Euren marrazkiak oinarri, paperezko itsasontziak egin zituzten Lasarte-Oriako hurrek. TXINTXARRI



Hurrekin talde argazkia egin zuten eta ontzidiak txosna apaindu zuen. TXINTXARRI



Hamaika doinu txistulari taldeak kaleak alaitu eta emanaldia eskaini zuen. Bazkal orduan, eguzkitako, aterki edo txapelak beharrezkoak izan ziren

Txistu doinuek kalez kale herria esnatu zuten. TXINTXARRI



Txistularien emanaldiarekin dantzatzera animatu ziren herritarrak. TXINTXARRI

Mahaia herritarrez bete ziren Sorgin Jaietako bazkarian. TXINTXARRI



Txapela, aterkiak edo eguzkitakoak erabilita, hala moduz eguzkitik babestu ziren mahaikideak. TXINTXARRI

Sukaldariak lan eta lan aritu ziren bigarren platera prestatzen. TXINTXARRI



antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

gora San Pedro jaiak



Merhezi taldeak herritarrek bildu zituen tabernaz taberna. TXINTXARRI

Merhezi taldeak trikipoteo ederra egin zuen. Presoekiko elkartasun manifestaziora herritarrek ez zuten huts egin, ezta Sorgin Azokara ere



Trikipoteoaren kantuekin, dantzan eta kantuan Sorgin Jaietako kideak. TXINTXARRI



Presoekiko elkartasuna adierazi zieten herritarrek, zirimirri artean. TXINTXARRI



'Basoko Maxuxta' berak sortutako osagarria bezero bati eskaintzen. TXINTXARRI



Artisau bat, sortzen. TXINTXARRI



Bezero bat jantzi dotore bat probatzen, erosi aurretik. TXINTXARRI



Azokara bertaratutako bi bezero, Izan Inurriren egutegiari begira. TXINTXARRI



Materialak berrerabilita sortzen duenik ere egon zen sorgin azokan. TXINTXARRI



Uretara sartzerako orduan, komeriak izan zituzten taldeek. TXINTXARRI



Jaitsierako partaideek Okendotik Elebeltzeko arrapalara egin zuten bidea. TXINTXARRI



Sorosleak, azalpenak ematen. TXINTXARRI

Sorgin Jaiek Oriako jaitsiera berreskuratu zuten eta berriro ontziak, flotagailuak... ibili ziren ibaian behera. Umore ona nagusi izan zen parte hartzaileen artean



Herritarrak bildu ziren ibai ertzean parte hartzaileei animoak ematera. TXINTXARRI



Ontzietan edo oinez, ibaiaren jaitsiera egiteko beharrezkoa izan zen abilezia. TXINTXARRI




Sariak zituzten zain, zubian. TXINTXARRI



Sorosleak oztopo ere bilakatu ziren momenturen batean. TXINTXARRI

zitek
zientziaeskola
apoyo escolar



Laguntza eskolara, hobetu zure emaitzak.
Talde txikiak eta arreta pertsonalizatua.



LH – DBH – Batxilergoa –
Unibertsitaterako sarbidea – Graduak



Ingelesa: hobetu zure notak
eta/edo ziurtatu zure maila
B2 (First) – C1 (Advanced)



Utzi matrikula eginda datorren ikasturterako, eta goza ezazu udaz!



Klaseak irailaren lehen astean hasiko dira

Informazioa eta matrikulazioa online egiten da.



Informazioa eta matrikulazioa egiteko, idatzi gure e-mailera:



info@zitek-akademia.com



Klaseak hasteko:
Irailaren lehen astean



Euriagatik, Kukukako dantza taldeek Oriarten egin zuten emanaldia eta aterkiak nagusi izan ziren LGTBQ+ egunaren aldarrian



Oriako jaitsierako parte hartzaileek argazkia egin zuten amaieran. TXINTXARRI



Ibaian ibili ostean, dutxa egin zuten Okendo plazan. TXINTXARRI



Taldeetako batek euskal dantzak eta palestinarrak nahastu zituen. TXINTXARRI



Iturriko urak freskatzeko balio izan ziren dantzariei. TXINTXARRI



Kukukako talde ezberdinek euren dantzak erakutsi zituzten. TXINTXARRI



LGBTQ fobiari aurre egiteko batu ziren herritarrek Lasarte-Oriako kaleetatik barrena. TXINTXARRI



Aterki azpian egin zuten bidea manifestazioarekin bat egin zuten herritarrek eta aterpean entzun zituzten antolatzaileen hitzak. TXINTXARRI



Desafioan, proba ezberdinak burutu behar izan zituzten taldeek. TXINTXARRI



Piezak ongi batzeko saiakeran. TXINTXARRI

**Desafioan lau talde
neurtu ziren.
Ginkana baten
antzera, hainbat
probetan aritu ziren
norgehiagokan. Giro
onari eutsirik,
Elektropottotteren
doinuek dantzan
jarri zuten erdigunea**



Elektropottottek herritarrek bildu zituen eta kalez kale jarraitu zuten taldea. TXINTXARRI



Adin guztietako ikusleak. TXINTXARRI



Elektropottottek kideek ederki egin zuten kantu eta dantza eta herritarrek ere bai. TXINTXARRI



ETXEZARRETA HARATEGIA

Bertako okela
• Urdaitegia • Eramateko janaria

Gora San Pedro Jaiak!

Gora Lasarte-Oria!

Hipodromo Etorbidea, 2 • Tel. 943-36 13 79 / 610 44 15 44 • LASARTE-ORIA



SANPEDROEN EZTANDA

Lehen txupinak leherrarazi zituen aurtengo sanpedroak, haurrenak

Haurren txupina lehertuta egin zuten eztanda aurtengo San Pedro Jaiek. Aurtengo omendua Gurutze Gorria izan denez, eragile horretako arduradunak ere udaletxe zaharreko balkoian izan ziren

Txintxarri

Egun beroa izanagatik, goizeko lehen ordutik nabari ahal izan zen festa giroa herrian. Jendea koloretako blusak gerrian lotuta irten zen kalera ostiralak argitu orduko. Musika tresnak eskuetan hartuta zeramatzaten txarangetako musikariak gurutzatu zituen TXINTXARRI-ko kazetariak, baita euren salmentak egiteko kale postua jartzeko asmoz esnatu ziren puxika saltzaileak ere.

Txupinazora fresko joateko, kiroldegiko ur jolasetan aritu ziren gaztetxoak aurrena, eta Elizate plaza ingurua hartu zuten gero, gainerako herrikideekin batera; bertatik ikusi zuten denek

ala denek goizeko txupinaren eztanda.

Agustin Valdivia alkateak hartu zuen hitza, eta jaiak gozatzeko eskatu zien bertaratu ziren guztiei. Hori bai, suziria piztu aurretik, elkarrekiko errespetua ere eskatu zuen; gogorarazi eta nabarmendu zuen ez zutela inolako erasorik onartuko. Bea Egizabal umoregileak dinamizatu zuen hitzordua, eta bertaratutako herritarrei berak hala eskatuta, gogotsu egin zieten txalo Gurutze Gorriko aurtengo omenduei. Suziria leheretzearekin batera, pozik eta alai egin zuten kantu eta dantza txarangarekin batera. Urtero lez, konfeti eta puxikak airean, irudi ederrak utzi zituen une horrek.



Udaletxe zaharreko balkoia eta Kale Nagusia izan zen aurtun ere adin tarte guztietako herritarren bilgune, bertatik jaurti



Koloretako blusak jantzita irten ziren kuadrilla asko goizean goizetik. TXINTXARRI



Herritar bat, zapia lepoan. TXINTXARRI



Garaiz bertaratu ziren gazte kuadrillak udaletxe zaharrera, lekua hartzera. TXINTXARRI



Armarridun zapia lepoan. TXINTXARRI



Kale saltzailea, puxikak garraiatzen, horiek salgai jarri aurretik. TXINTXARRI



baitzuten haurren txupinazoa, eguerdiko hamabietan. TXINTXARRI



Saxofoi jotzailea. TXINTXARRI



Txupina jaurtita, Lasarte-Oriako bandera igo zuen alkateak. TXINTXARRI



Oaintxe in deu! herriko txarangak girotu zuen txupinazo goiza. Horiekin izan ziren erraldoi eta buruhandiak ere. TXINTXARRI



Patxintxi Sariak ere balkoira irten ziren. TXINTXARRI



Buruhandi bat eta txarangako musikari bat, elkarri begira. TXINTXARRI

Egun beroa izan zen ekainaren 26a baina horrek ez zuen San Pedro Jaien hasierako giro ona eragotzi. Kale Nagusia lepo zegoen eguerdiko hamabietako txupinazorako




Gora San Pedro Jaiak!

Zirkuito ibilbidea, 12 20160 • LASARTE-ORIA
Tel. 943-37 14 40 Mugikorra: 608 39 18 85
carroceriaslasarte@carroceriaslasarte.com

Carrocerías Lasarte Karrozeria

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatu en garbiketa





Txupinazoa jaurti aurreko minutuetan Sorgin Dantza azkenekoz egin zuten Okendo plazan bertan. TXINTXARRI

AURTENGO OMENDUA

Lasarte-Oriako Gurutze Gorria omendu zuten balkoian zein kultur etxean

Lau hamarkada pasatxoko ibilbidea aitortu diote denon osasuna zaintzeaz arduratzen den boluntario taldeari. Ekainaren 26 arratsaldeko txupinazoa eta 29ko omenaldi instituzionala baliatu zituzten aintzatespenerako

Txintxarri

Lasarte-Oriako Gurutze Gorriari azken 40 urteetan baino gehiagotan egindako lana aitortu diote udalak eta herritarrek aurtengo sanpedroetan.

Aurreneko ekimena ekainaren 26 arratsaldeko txupinazoa izan zen. Sorgin Dantza amaitu eta gero, Okendo plazan bildu ziren ehunka pertsonak udaletxeko balkoira zuzendu zituzten begiradak, bertan baitzeuden boluntarioz osatutako eragileko ordezkariak, jaietako pregoia

irakurri eta ospakizunetan murgiltzeko prest. Venezuelako lurrikarengatik kaltetuak izan direnak izan zituzten gogoan, besteak beste, eta "besarkada maitakor handi bat" bidali zuten herrialde horretara eta baita hangoak izan eta hemen bizi direnei ere.

Lau hamarkada pasatxo


Hiru egun geroago, Lasarte-Oriako Gurutze Gorriari omenaldi instituzionala egin zioten, 13:00etan, Manuel Lekuona Kul-

tur Etxean. Esker onez eta hunkituta jaso zuten aipatu erakundeordezkariek aintzatespena. Amaya Goyaranek hitz egin zuen herriko Gurutze Gorriaren ordezkari gisa, eta adierazi zuen aitortzak "urte luzez egindako bidea" balioan jarri duela. Gaineratu zuen Gurutze Gorriaren "ardatz eta bihotz" diren boluntarioen lana ere jarri duela erdigunean.

Jasotako aintzatespenek are indar gehiago emango diete egunerokoarekin jarraitzeko.



Suziriak eztanda egin zuenean kolorez bete zen Okendo plaza eta, ekainaren 26



Gurutze Gorria eragileko kideek pregoia irakurri zuten balkoian. TXINTXARRI



Herritarrek arretaz jarraitu zuten arratsaldeko txupinazoa. TXINTXARRI



Arratsaldeko eztanda. TXINTXARRI



Oaintxe in deu! txarangako kideak, erdigunea alaitzen. TXINTXARRI



goizean egin bezala, gogotik dantzatu zuten herritarrek. TXINTXARRI



Omenduentzako oroigarria. TXINTXARRI



Erketz EDTko dantzariak. TXINTXARRI



Amaya Goyaran Gurutze Gorriko ordezkaria hizketan. TXINTXARRI



Zero Sette Akordeoi Orkestrak zenbait musika pieza jo zituen. TXINTXARRI



Ordez kari politikoe k lagunduta, Lasarte-Oriako ereserkia abestu zuten ekitaldiaren amaiaren. TXINTXARRI

ARGAZKI ESTUDIOA · EZKONTZAK
UME ETA FAMILIA SESIOAK · BOOK
JAUNARTZEAK · HAURDUNALDI AK
JAIO BERRIAK · PUBLIZITATEA · BIDEOA

Eztiphoto

WWW.EZTI PHOTO.COM/ WWW.LILIBAT.EUS
Golf enparantza 4 (behea). Lasarte-Oria
943 900 565 - info@eztiphoto.com





TTAKUN KE-REN EKIMENAK

Sanpedroetan ere erabili zuten euskara

Gure Patxintxiak sarien banaketa, haurren bazkaria eta ur jolasak, Sorgin Dantza, Xumela koruaren kantu eta dantza jira eta herriko baserrietako sagardo dastaketa izan ziren Ttakun Kultur Elkarteak aurrera eramán zituen ekimenak, udalarekin lankidetzan

Txintxarri

Ekainaren 26an bertan egin zuten aurreneko ekimena, Gure Patxintxiak izeneko sariak banatuta. 65 urteko hiru herritar maitagarri omendu zituzten: Maria Dolores Iturbe, Antonio Cepeda eta Ramon Moreno. Herriari eta komunitateari emanak bizi direla goraiatu zuen Bea Egizabal umoregileak eta ekitaldiaren aurkezleak. Hiruek hunkituta jaso zuten aitortza, txapela dotoreak buruan jantzita eta lore sorta eder bana eskuetan.

Indarrak berreskuratu asmoz, eta arratsalde horretako ekimenei eutsi aurretik, makarroi jan ederra egin zuten herriko gaztetxoek. Okendo plazan elkaru ziren partaide guztiak Gaurtxori txarangak lagunduta, eta Atsobakerrainoko bidea egin zuten, han bazkaltzeko. Erdigu-

nera itzuli aurretik ur jolasetan aritu ziren.

Oriatik, Okendoraino

Gaztetxoak uretan jostatzen ari ziren bitartean jantziak eta blusak prestatu zituzten Sorgin Dantzaren parte hartu zuten ehunka herritarrek, Oria auzoan. Talde argazkiak eta bestelakoak aterata, ilaran jarri eta Okendo plazarantz abiatu ziren bidean hainbat dantzaldi eginda. Horrez gain, beroa egiten zuenez, ur freskoa edateko baliatu zituzten geldialdiak.

Enparantzara iritsi zirenean, arratsaldeko txupinazorako minutuak falta zirenez oraindik, azkeneko emanaldiak bertan egin zituzten familia, lagun eta herrikideen begiradapean.

Urtero lez, ibilbide guztian zehar herriko txistulari finek gidatu zituzten dantzariak.

Hiru egun geroago, ekainaren 29an, goizean, emanaldia egin zuten Xumela koruko kideek. Aurretik sabelak ondo bete eta indarrak hartzeko, hamaiketako ederra egin zuten Jalgi kafe antzokiaren atarian, Sagardotegi kalean. Bizipozaren koloretako zapiak lepoan lotuta, kantuan aritu ziren gero herriko kale eta txokoetan barrena. TXINTXARRI-ko lagunok, gainera, sorpresa ederra jaso genuen aipatu kantu taldearen partetik; abesti bat eskeini zioten aldizkariari, baita Isaac Farreri ere, "egunero-egunero euskararen eta euskal kulturaren alde egiten duen lana eskertzeko".

Arratsalde horretan sagardo dastaketa egin zuten Okendo plazan eta edalontziak erosi zituztenak Buenavista, Saltsate, Sollane eta Telleri baserrietako edariekin freskatu ziren.



Patxintxien senide eta lagunak ekitaldian egon ziren, protagonistekin. TXINTXARRI



Bea Egizabalek eman zion umore ukítua hitzorduari. TXINTXARRI



Herriko gazteak, ur jolasetan. TXINTXARRI



Xumelaren kantu liburua. TXINTXARRI



Maratoiko kamisetak saltzen. TTAKUN KE



Betiko lez, kantu jira eder eta alaia egin zuten Xumela koruko lagunak. TXINTXARRI



Makarroi janera txarangak lagunduta joan ziren herriko gazteak. TXINTXARRI



Euskararen 11. Maratoia urri erdialdean ospatuko dugula-eta, zortzikoteko kideek zenbait ekimenetan parte hartu zuten. Herritarrek dotore jantziko dituzten kamisetak saldu zituzten, adibidez



Abiatu aurreko momentuak baliatu zituzten dantzariak, prestatzeko. TXINTXARRI



Txistulari finek gidatu zituzten dantzariak Okendo plazaraino. TXINTXARRI



Urteroko ohitura berri zuten zortzikote txikiko zein helduko kideek, elkarrekin talde argazkia aterata. TXINTXARRI



Ehunka herritar animatu ziren parte hartzera blusa grisa jantzita. TXINTXARRI



Zortzikote helduko kideak, Kale Nagusian dantzatzen. TXINTXARRI



Sagardo freskoa botatzen. TXINTXARRI



Herritar ugari animatu ziren herriko baserrietako sagardoa dastatzera. TXINTXARRI

ELECTRICIDAD ARREGUI

600 85 75 86
www.electricidadarregui.com
Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

Zapaiako haizagailuak

HAIER hozkailua

Zutikako haizagailuak

Gora Lasarte-Oria!
Gora San Pedro Jaiak!



SANPEDROAK, SAKONEAN

Gogoz eta modu parte hartzailean aritu ziren, egunero, lasarteoriarrak

Haur, gazte eta heldu, askotariko adinetako lasarteoriatarrek mugarik gabe gozatu zituzten aurtengo sanpedroak. Goizetik hasi eta oheratu bitartean, askotariko jardueretan parte hartu zuten

Txintxarri

Hilaren 27ko goiza, danbor eta kupel artean hasi zuten etxe txikienean. Haurren danborradako kideak udaletxe zahar aurrean lauzpabost doinu bertan jo eta kaleetatik barrena egin zuten bidea. Bien bitartean, eguerdi alde- ra, Biyak Bat elkarteko kideek dantza erakustaldia egin zuten Okendo plazan, eta Nafarroako jotzen doinuak nagusi izan ziren Isla plazan.

Arratsaldean, alde batetik, giza dorreak ikusteko aukera izan zuten herritarrek Vilafranca del Penedes hiriko Falcons taldearen eskutik, eta bestetik, batukada emanaldia eskaini zuten herriko batukada talde Dinbi Bandak.

Hurrengo egunean, berriz, hilaren 28, pilota txapelketako finalak jokatu ziren goizean Loidibarren pilotalekuan. Hiru mailatako gazteak aritu ziren nor baino nor. Ostean, Txaranga del Oriak girotu zuten erdigunea, eta festa giroa baliatuta, izan ziren musikarien doinuetara dantzatzera animatu zirenak.

Arratsaldean, berriz, eguraldi iragarpenak bertan behera utzi zuten Holi Festa. Baina beste jarduerak aurrera eraman ziren eta Jaizkibel zein Isla plazan eta Loidibarren pilotalekuan herritarrek bildu ziren Extremadurako jakiak eta doinuez gozatzera, jostun talde berezi baten gainerako antzerkia ikustera edo Mucedades taldearen abestiak kantatzera eta dantzatzera.

Hilaren 29a eta 30a

San Pedro goiz entretenitua izan zuten lasarteoriatarrek. Patroiaren eguneko Meza Nagusiak abiarazi zuten astelehena, eta, urtero lez, fededun ugari bildu zen San Pedro Elizan. Ohikoa den moduan, Erketz EDTko dantzariak ez zuten hutsik egin; bertan izan ziren, eta eurak arduratu ziren Aurrekua dantzatzear. Horiez gain, Alboka abesbatzak ere kanta bat baino gehiago abestu zituen. Hitzordu hori amaituta, 12:30ean, herri kirolen erakustaldia ikustera bertaratu ziren herritarrek. Eguraldi txarra medio, Elizatze plazan ez, BM supermerkatu atarian egin zuten erakustaldia kirolariak.

Arratsaldea Saso-Dance saioarekin hasi zen. Jarraian, erraldoiak eta buruhandiak abiatu ziren Blas de Lezoko lokaletik, Ezpelur dultzaineroekin batera. Ostean, sardina jan eta sagardo dastaketa herrikoia egin ziren, Okendo plazan. Amaitzeko, The Noise Makers taldeak kontzertua eskaini zuen.

San Pedro Jaiak amaitzeko, arratsaldean, etxeko txikiak eta gazteak ederki gozatu ahal izan zuten Circus ferian, Perli eta Koxkoloren abenturekin, buruhandien aurretik korrika eta Benito Rosek egin zuten bizikleta eta moto trail erakustaldian. Musikak ere izan zuen bere tarte. Isla plazan Tsunami orkestrak dantzan jarri zuten herritarrek eta Balcan Paradise Orkestrako kideak erritmoz bete dute Okendo plaza.



Bero sapa egin arren, erdigunean ibili zen gaztetxoan danborrada. TXINTXARRI



Udaletxe zaharrean zenbait pieza jo zituzten danborradako kideak. TXINTXARRI



Kide bat zaldi gainean. TXINTXARRI



Senide, lagun eta herritarrek bildu ziren Okendo plazan lerroko dantza erakustaldia ikustera. TXINTXARRI



Sevillanen erakustaldia ere egin zuten Biyak Bateko lagunek. TXINTXARRI

Zenbait jardueratan partaide gisa aritu dira herritarrak, eta beste batzuetan, berriz, ikus gisa. Modu batera zein bestera, ederki gozatu dute. Giro bikaina izan da



Bakarka, binaka edo taldean kantu ezberdinak eskaini zituzten. TXINTXARRI



Voces Navarras taldeak jotak abestu zituen Isla plazan. TXINTXARRI



Dorre egileez gain, musikariak ere baditu taldeak. TXINTXARRI



Kide bat jarraibideak ematen. TXINTXARRI



Giza dorre ikusgarriak osatu zituzten Falcons taldeko kideek. TXINTXARRI



Gora San Pedro Jaiak!
Aupa Lasarte-Oria!





Herriko kale eta bazterrak girotu zituen Dinbi Banda batukada taldeak. TXINTXARRI



Taldeak, Jaizkibel plazan. TXINTXARRI



Markagailua aldatzen. TXINTXARRI



Takoak eskuetan. TXINTXARRI



Ikusmin handia sortu zuen Mucedades taldearen emanaldiak. TXINTXARRI

**San Pedro Jaietan,
musika mota
ezberdinek hartu
zituzten herriko kale
eta plazak. Pilotako
finalak ere jokatu
zituzten gaztetxoek
Loidibarren
pilotalekuan**



Zenbait herritar Txaranga del Oriarekin dantzan. TXINTXARRI



Partidak amaituta, orogarri bana jaso zuten Intza Pilota Eskolako kideek. TXINTXARRI



Hiru norgehiagoka jokatu zituzten Loidibarren pilotalekuan. TXINTXARRI



Euritik babesteko estalkian pilatu ziren Mucedadesen kontzertua ikustera joandakoak. TXINTXARRI



Meza Nagusia aurrera eraman zuten patrioaren egunean. TXINTXARRI



Ogi mami goxoak jateko aukera izan zuten herritarrek, Jaizkibel plazan. TXINTXARRI



Erketz EDTko dantzariak. TXINTXARRI



Ohi bezala, Alboka abesbatzak kantatu zuen elizkizunean. TXINTXARRI



Norte de las Hurdes taldeko danbolin jotzaileak. TXINTXARRI

Extremadurako ogi
mamiak dastatu
bitartean, Hurdeetako
doinuek girotu zuten
Jaizkibel plaza.
Ohiturari jarraikiz,
San Pedro eguna
mezarekin hasi zuten
herritarrek

XI. EUSKARAREN MARATOIA

Salmenta: Ttakun KEren bulegoan

piztu!
sugarra gu gara

Helduentzat 16 €

Haurrentzat 13 €

Abanikoa 6 €



Herri kirolen erakustaldi animatua aurrera eramán zuten BM supermerkatu aurreko eremuan. TXINTXARRI



Ingudean, harria jasotzen eta aizkoran aritu ziren kirolariak. TXINTXARRI



Saso Dance lehiaketan parte hartu zuen gazte talde bat. TXINTXARRI



Dantzari trebeak direla erakutsi zuten partaideek. TXINTXARRI



Erakustaldi ederrak egin zituzten. TXINTXARRI



Hara eta hona korrika ibili ostean, buruhandiak atsedean hartzen. TXINTXARRI



Herriko kale eta auzoetan barrera egin zuten kalejira erraldoi eta buruhandiek. TXINTXARRI



Sardina jana egin zuten herriko merkatariak, Okendo plazan. TXINTXARRI



Aterpearen mokadua. TXINTXARRI



The Noise Makers herriko taldeak entzuleen gustuko kontzertua eskaini zuen. TXINTXARRI



Isaac Farre-ri aitortza egin zioten merkatarien elkarteko kideak. TXINTXARRI



Postuetan jokatu zuten haurrek. TXINTXARRI



Entrenimedu ederra izan zuten gaztetxoek. TXINTXARRI

Urtero antolatu ohi duen sardina jan herrikoia aurrera eramán zuten aurten ere merkatariak. Ostean The Noise Makers taldeak kontzertua eskaini zuen; jarraitzaile ugari bildu zen horiek entzutera

76. SANTA ANAKO PARODIA

Entseguak uztailaren 13tik:
Astelehenetik ostiralera
18:00etatik 20:00etara
Manuel Lekuona Kultur Etxean

Zatoz eta parte hartu!
Barruan duzun artista ateratzeko garaia da

Eman izena WhatsApp bidez
695 78 53 89 zenbakian edo agertu
kultur ebxera entsegu orduetan.



Haur eta guraso ugari izan ziren Tximistarreta parkeko Circus Ferian. TXINTXARRI



Euren paradisu gogokenaren bila aritu ziren Perli eta Koxkolo. TXINTXARRI



Ettxeko txikiak buruhandiak jotzera ere ausartu ziren. TXINTXARRI



Ettxeko txikiak eta ez hain txikiak adi jarraitu zituzten Perli eta Koxkoloren abenturak. TXINTXARRI



Erraldoiek Ezpelur gaita jotzaileen doinuak dantzatu zituzten. TXINTXARRI



Erraldoi eta buruhandiek ikusmira sortu zuten egunero. TXINTXARRI

Azken arratsaldean, etxeko txiki eta gazteek antzerkiez edo erraldoi eta buruhandiez gozatu zuten bitartean, helduenek dantzaldia izan zuten Isla plazan



Tsunami orkestrako kideek euren doinuekin dantzan jarri zituzten Isla plazara hurbildu ziren herritarrek. TXINTXARRI



Bizikleta erakutsi zien zaletuei. TXINTXARRI



Bizikleta zein motorrarekin egin zuen erakustaldia. TXINTXARRI



Jauzi eta akrobazia ugari egin zituen Benito Rosek. TXINTXARRI



Herritarrek azkenekoz bete zuten Okendo plaza orkestra entzuteko. TXINTXARRI

Benito Rosek trial erakustaldia egin zuen eta Balcan Paradise Orchestra-ren metal eta perkusio doinuak azkenekoz jarri zuten Okendo plaza dantzan



Balcan Paradise Orchestra-ko kideek metal eta perkusio doinuak zein ahotsak nahastu zituzten emanaldian zehar. TXINTXARRI



Indarrez beteriko kantuak eskaini eta dantzatu zituzten orkestrako kideek. TXINTXARRI



zerbitzu mistoak

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Uistin Kalea z/g | Tel. 943-37 08 45 | Lasarte-Oria

- Manikura eta pedikura
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoa
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pulsatuarekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Solariuma
- Ehunen birsortzea eta giharren indartze makina

Gora San Pedro Jaiak!
Aupa Lasarte-Oria!



Kale Nagusia izan da zezensuzkoen entzierro gunea aurten ere. Jende ugari parte hartu zuen. TXINTXARRI




LOZET elkartearen zezensuzkoetako bat, jende artean sartzen. TXINTXARRI



Hazas musikari lasarteoiatarrek Okendo plazan eman zuen kontzertua ekainaren 26an. TXINTXARRI



Jendetza bertaratu zen Jagoba eta Hazas herrikideak entzutera. TXINTXARRI



Ikusleen konplizitatea uneoro bilatu zuen Hazasek. TXINTXARRI



Jagoba Mendizabal eta David Vila, abestietako bat interpretatzen. TXINTXARRI



Aurten argitaratutako 'Atzera Begirada Bat' aurkeztu zuten Jagoba musika egitasmoko partaideek. TXINTXARRI



Los Tenampas taldeko abeslaria, oholtza gainean dena ematen. TXINTXARRI



Herritarrek, dantzan. TXINTXARRI

Gauetz ere ospatu eta gozatu genituen San Pedro Jaiak, jakina. Bereziki euritsua izan zen ekainaren 28a baina jarduera batzuk aurrera eraman eta festa giroa mantendu zuten herritarrek



Aurtengo danborradako aitortzak eta sariak. TXINTXARRI



Danbor jotzaileak zuzentzen. TXINTXARRI



Eguraldi txarrari aurpegi ona jarri zioten danborradako sukaldariak. TXINTXARRI



Zaparrada une bustienetan ere tinko eutsi zioten danbor jotzaileak. TXINTXARRI



San Pedro jaietan lan handia egin dugu!

Argazki guztiak webgunean daude: www.txintxarri.eus edo QR kodea eskaneatuz



Gora Lasarte-Oria! Gora San Pedro Jaiak!



Danborradakoek ohiko ibilbidea egin zuten eta udaletxe parean jo zuten. TXINTXARRI



Pasioz abestu zuten Duo Imperial taldeko musikariek. TXINTXARRI



Josune Arakistain, Süne, kontzertua hasi berritan. TXINTXARRI



Bustita ere ederki pasako zutela esan zien Süne musikariak parean zituen zaleei. Esan, eta egin. TXINTXARRI



Plastikozko xirak, aterkiak... erabili zituzten zaleek. Etxera ez ziren joan. TXINTXARRI



Oaintxe in de! txaranga. OAINXE IN DEU!



Sasoeta ikastetxeko patioetik jaurti zituzten suziariak. TXINTXARRI



Suziri ikusgarriak. TXINTXARRI



Ikuskizun koloretsua eman zuen Vulcano piroteknia etxeak. TXINTXARRI



ESKERRIK ASKO

GUREKIN JAIEZ GOZATZEAGATIK!

BLUSA ERANTZI
ETA DATOZEN
SANPEDROAK ARTE!

MILA ESKER JAIE TAKO JARDUERAK AURRERA
ATERATZEN LAGUNTZEAGATIK:

- **SEMBLANTE ANDALUZ**
- **LASARTE-ORIAKO TXISTULARI TALDEA**
- **GURE-ETXEA TABERNA**
- **JALGI TABERNA**
- **NORBANAKO KOLABORATZAILEAK**
- **PARTE HARTU DUZUEN HERRITARREI**



GORA LASARTE-ORIA!



KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Oier
Zorionak Oier!!! 9 uda zurekin gozatuak eta aurretik datorkiguna gozatzeko prest!! Aupa zu! Ederki ospatuko de. Muxu haundi bat etxekoan partez.



Alain
Zorionak Maitia! 10 urteek opari dotoreak merezi dute, baino guretzat oparia zu zara!

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- txintxarri.eus-en erabiltzailea sortu eta txintxarri.eus/zorionagurrak helbidean sartu.

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

- Zatoz Ttakunera edo bidali WhatsApp-ez 688 68 35 10 telefonora.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu

GUARDIAKO FARMAZIAK

LASARTE-ORIA EGUNEZ	
OSTIRALA, 3	KNIESE
LARUNBATA, 4	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 5	GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 6	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 7	KNIESE
ASTEAZKENA, 8	KNIESE
OSTEGUNA, 9	DE MIGUEL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA EGUNERO
22:00etatik 09:00etara
CASTILLA-LARBURU farmazia
Urbietea kalea 7, / 94-55 29 41

URTE OSOKO GUARDIAK

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUTUNAK

Ehun eta bat udaberri**LARREKOETXEKO BILOBAK ETA BIRBILOBAK**

Astearte eguerdian, ekainaren 23an hil zen amona Juanita, etxekoekin eta etxean. Goxo eta lasai. Bizitza luzea izan zuen, 1925ko maiatzaren 15ean jaio baitzen gure amona, pentsa. Hamar anai-arrebetan gazteena. Gerraurrea, gerra, diktadura eta beste zenbat istorio kabitzen dira ehun eta bat urtetan. Beizama jaioterritik hamasei urte zituela iritsi zen Donostiara neskame lanetan aritzera. Gazte bezain ausart. Handik gutxira, Irubideko erromerian

ezagutu zuen aitona Martin. Baserrian jaio hezi eta bizia. Larrekoetxe baserriari eman zion guztia. Baserriak egunero behar du eskua. Amonak urteko 364 egunetan ematen zion berea, eta hartara, jai egun bakarra izaten zuen. San Tomas eguna aukeratzen zuen jai egun eta Donostiako Antzoki Zaharrera joaten zen eskal antzerkia ikustera. Amona, baserriarra izanagatik ere, ez baitzegoen tradizioei lotua. Antzerkia bezain beste gustatzen zitzaion moda kontua. Donostian barrena esnea banatzeko bidaiak aprobetxatzen zituen dendetako eskaparateak ikusi, gustuko zuena buruz ikasi eta etxekoei soinekoak josteko. Oilategiko oilarraren kantuz

goizeko 06:00etan esnatzen zen eta gauera arte lanean aritzen zen, larrean zein sukaldean. Hala ere, esne zopak prestatu gabe ez zen joaten ohera, hori izaten baitzen seme-alaben biharamuneko gosari platera. Bilobak ere berehalaxe iritsi ziren baserrira. Denera bederatzi seme-alaba, hamasei biloba eta hemezortzi birbiloba izan ditu amonak, hainbeste kabitzen baikara amona Juanitaren ehun eta bat urtetan. Denak ala denak amonaren magaletik pasata, amonaren madalenak janda eta baserri bueltan hazi, hezi eta bizi izan gara. Sukaldeko mahaiaren bueltan pasa izan ditugu arratsaldeak. Familia handia izanik, aulki falta izan dugu askotan. Hala, batzuk aulkietan eserita, besteak

apatxean, txikienak mahai gainean eta gazteenak zutik, urteak bezainbeste senide kabitu izan gara amonaren sukaldean. Mahaiaren bueltan, borobilean, elkarri irakatsi diogu irakurtzen, josten, jolasten, puntua egiten edota mugikorra erabiltzen. Uneoro, gure modura, elkar goxatzen.

Hau eta askoz gehiago kabitu izan dira amona Juanitaren ehun eta bat urtetan.

Eskerrik asko izeba-osabei urte guzti hauetan amona hain goxo zaintzeagatik.

Eta mila esker irakatsi eta emandakoagatik amona, ez ditugu sekula ahaztuko zure indar, adore eta zoriona.

Lurra goxo har zaitzala.

GUTUNAK:

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etortzea (Geltoki kalea, 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.



HIRIBUSA

Hiribusa



Eskola egunak

Antxisu	Olatxoaldea	Institutua	Antxisu
7:40	7:47	7:50	8:06

Lanegunak

Antxisu	Olatxoaldea	Zabaleta	Atsobakar	Antxisu
8:20	8:33	8:37	8:43	8:55
9:00	9:13	9:17	9:23	9:35
10:20	10:33	10:37	10:43	10:55
11:00	11:13	11:17	11:23	11:35
11:40	11:53	11:57	12:03	12:15
12:20	12:33	12:37	12:43	12:55
13:00	13:13	13:17	13:23	13:35
13:40	13:53	13:57	14:03	14:15
14:20	14:33	14:37	14:43	14:55
15:00	15:13	15:17	15:23	15:35
15:40	15:53	15:57	16:03	16:15
16:20	16:33	16:37	16:43	16:55
17:00	17:13	17:17	17:23	17:35
18:20	18:33	18:37	18:43	18:55
19:00	19:13	19:17	19:23	19:35
19:40	19:53	19:57	20:03	20:15
20:20	20:33	20:37	20:43	20:55

Larunbatak

ESKELA

**TXINTXARRI eskelak:
zabalkunde handiena Lasarte-Orian**

ESKELAK JARTZEKO:
943 37 14 48 edo **646 82 44 66**
publizitatea@ttakun.eus
Osteguna 16:00ak arte jasotzen ditugu.

PREZIOAK:
Eskela mota bat TXINTXARRI Paperean + txintxarri.eus-en:
125 € (+ 21% BEZ).

IRAGARKI SAILKATUAK

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUAN HARTU

Lasarte-Orian gela bat alokatu nahi ditut uzta-
laren 15etik abuztuaren bukaerara arte (euskal-
duna, Madrilan lan egiten duen pertsona). Ha-
rremanetako zenbakia, 687 35 50 95.

LANA

ESKAERA

Emakumea lan bila. Etxeko lanetarako, adineko
pertsonak zaintzeko, bulegoak garbitzeko...
Externa moduan. Gizarte eta Osasun Laguntza-
ko Ikastaroko Profesionaltasun Agiria dut. Es-
perientzia. Edozein ordutegitan lan egiteko prest
nago, gauzez ere bai. Harremanetako zenbakia,
676 28 22 06.

Iragarkia jartzeko

943-37 14 48
publizitatea@ttakun.eus
www.txintxarri.eus/sailkatuak

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

batu txintxarri kanalera!

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre Etxeberria,
Iñigo Gonzalez Sarobe,
Maddi Noriega Zaldua
eta Lierni Apaolaza
Urdanpilleta.

Publizitatea
Irati Zatarain Peña.

Zintilloaren egilea
Jesus Garcia Vivar.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Lierni Rekondo,
Gorka Alvarez, Aizpea
Amas, Maitane Rebe, Jexux
Artebe, Oihane Puertas
eta Pili Ormazabal.

Banatzaileak
Nora Navarro, Aimar
Hernandez, Gari Iraola,
Axier Iraola, Eneko Sanchez
eta Udane Guisado.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea, 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua:
SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskuratu

1.000€

eta gastatu 3 ordutan



Lasarte-Oria 2026

1.000€eko saria
Eta zuri tokatzen bazaizu?

Kontsumitu ezazu Lasarte-Orian
uztailaren 6tik 19ra,
eta parte har ezazu
erosketa bonoen zozketan



**Kontsumitu
ezazu hemen
eta parte hartu!**

**Irudi hau duten
establezimenduetan**



Euskadi, auzolana, bien común



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO